Altzako Historia Mintegia

www.altzanet.eus

**OHIKO BATZAR OROKORRAREN AKTA**
**ACTA DE LA ASAMBLEA GENERAL ORDINARIA**

Tomasene kultur etxean, 2023ko martxoaren 16an, Altzako Historia Mintegiaren Ohiko Batzar Orokorrari hasiera eman zitzaion arratsaldeko 07:00ean, ondoko partaide hauekin:
Blanca Andueza Mnez. de Muniain, Elena Arrieta Yarza, Ana Artieda, Amaia Badiola, Román Cabanillas, Estrelli de la Cruz Echeverria, Bixente Elosegi Etxenike, Ramón Fermín, Joxerra Fernández, Koro García Moraza, Karmentxu García San Román, Susana Hernández Corchete, Arantza Idiazabal, Iñigo Landa Ijurko, Pilar Lázaro Pertierra, Koro Manso, Maribel Manzano Herce, Gotzone Ormazabal (Patxi Intxaurrandieta), Mertxe Perurena, Luismari Ralla Arruti, Dori Ruiz Lorenzo, Jon Serrano Gamaza, Mikel Ubillos Salaberria, Itziar Udabe, Jose Ramón Zapirain.
Batzarrera ezin izan dutela etorri esan dutenak: Antxon Alfaro Sagasti, Edurne Barandika Tolaretxipi, Angel Calvo Barco, Anttoni Loro Moreno, Agustín Rodríguez Apaolaza.
Batzarra hasi aurretik 2022. urteari dagokion Estibaus buletina banatu zen. Segidan, batzarraren gai-zerrendari heldu zitzaion.

*En Tomasene, a las 07:00 de la tarde del día 16 de marzo de 2023, se celebró la Asamblea General Ordinaria de Altzako Historia Mintegia con la participación de:*
*Blanca Andueza Mnez. de Muniain, Elena Arrieta Yarza, Ana Artieda, Amaia Badiola, Román Cabanillas, Estrelli de la Cruz Echeverria, Bixente Elosegi Etxenike, Ramón Fermín, Joxerra Fernández, Koro García Moraza, Karmentxu García San Román, Susana Hernández Corchete, Arantza Idiazabal, Iñigo Landa Ijurko, Pilar Lázaro Pertierra, Koro Manso, Maribel Manzano Herce, Gotzone Ormazabal (Patxi Intxaurrandieta), Mertxe Perurena, Luismari Ralla Arruti, Dori Ruiz Lorenzo, Jon Serrano Gamaza, Mikel Ubillos Salaberria, Itziar Udabe, Jose Ramón Zapirain.*
*Comunican que no podrán asistir: Antxon Alfaro Sagasti, Edurne Barandika Tolaretxipi, Angel Calvo Barco, Anttoni Loro Moreno, Agustín Rodríguez Apaolaza.*
*Antes del inicio de la Asamblea ser reparte el boletín Estibaus correspondiente al año 2022, pasando a continuación, a tratar el orden del día de la Asamblea.*

**1. 2022. urteko memoriaren onarpena**
Idazkariak 2022 urteko memoria aurkeztu zuen:

***1. Aprobación de la memoria del año 2022***
*El secretario presentó la memoria del año 2022:*

**1. Altzanet**

Webguneak normaltasunez funtzionatu du, aparteko ezustekorik gabe, eta atal batzuk eguneratuz joan dira, hala nola Ganbara eta Lekukoak.
Sare sozialetako jarduera garrantzitsua izan da, jarraitzaile kopurua handituz. Mezu gutxiago argitaratu ditugu, eta, beraz, irakurketa kopurua ere murriztu egin da. Hona hemen laburpen estatistikoa:

- Facebook: 542 jarraitzaile (+106), 23.943 irakurketa.
- Twitter: 399 jarraitzaile (+10), 9.663 irakurketa
- Youtube: 124 bideo (+69), eta denera 17.059 ikustaldi.

Flickr: 86 album (+22), 1.815 ikustaldi.

***1. Altzanet***

*La página web ha funcionado con normalidad, sin mayores contratiempos, y se han ido actualizando algunos apartados, como el de Ganbara y Lekukoak.*
*La actividad en las redes sociales ha sido importante, aumentando el número seguidores. Hemos publicado menos mensajes, por lo que también se han reducido el número de lecturas. Este es el resumen estadístico:*

- *Facebook: 542 seguidores (+106), 23.943 lecturas.*
- *Twitter: 399 seguidores (+10), 9.663 lecturas.*
- *Youtube: 124 vídeos (+69), acumula 17.059 visualizaciones.*
- *Flickr: 86 álbumes (+22), acumulan 1.815 visitas.*

**2. Argitalpenak**

**2.1 Estibaus bloga**

Estibaus blogean 38 sarrera argitaratu dira. Horietatik 31 euskaraz zein gaztelaniaz daude, 4 soilik gaztelaniaz eta 3 soilik euskaraz.
Artikuluen kopurua atalez atal sailkaturik hauek dira: Tokiko Bilduma 9, Kronika zaharrak 1, Ikerketa 5, AltzaNatura 1, Ganbara 1, Lekukoak 1, Ibilaldiak 3, Notiziak 5, Kronikak egungoak 4, Iritziak 3, In memoriam 5.
Estatistikei erreparatzen badiegu, denera 13.182 erabiltzaile egon dira eta 30.408 bisita.

***2. Publicaciones***

***2.1 Blog Estibaus***

*En el blog Estibaus se han publicado 38 entradas, de ellas 31 en euskera y castellano, 4 solo en castellano, y 3 solo en euskera. El número de entradas clasificadas por categorías: Colección Local 9, Crónicas antiguas 1, Investigación 5, AltzaNatura 1, Ganbara 1, Lekukoak 1, Excursiones 3, Noticias 5, Crónicas actuales 4, Opinión 3, In memoriam 5.*
*En cuanto a las estadísticas, el blog ha contado con 13.182 usuarios, y un total de 30.408 visitas.*

**2.2 Egutegia**

Altza 2022 egutegiaren aurkezpena egin zen abenduaren 16ean Sarruetako Etxarriene Auzo Etxean. Oraingo honetan, egutegiek Sarrueta-Martutene auzoko 60ko eta 70eko hamarkadetako irudiak daramatza.
Egutegiaren aurkezpenak beste topaketa bat egiteko aukera eman zuen, Bidebietako esperientzia pertsonalak eta kolektiboak partekatzeko, “Sarrueta-Martutene. Vivencias del barrio. Irudi partekatuak” izenburupean. Bertan auzoko Josetxo Yaven, Dolores Armendariz, Mertxe Ayesta eta Miren Koruko Gonzalez Galarragak parte hartu zuten.
Udan Garberan ikusi ahal izan zen erakusketa aretoan eskegita egon zen. Argazki horietako bost egutegietarako aukeratu ziren, Dolores Armendariz, Josetxo Yaben, Kutxateka, eta Txema Loinazek utziak.
Egutegia Casaresen banatu zen, eta argitalpenean lagundu dutenen bidez: Erdikoa Taberna, Nido eta Zumardi tabernak, Lizarra Kanpina, Sarroeta-Martutene Auzo Elkartea, Txapel-Andi elkartea, Garbera KZ, Herri Ametsa Ikastola.

**2.2 Calendario**

*El Centro Cívico Etxarriene de Martutene acogió el 16 de diciembre la presentación del calendario Altza 2023. En esta ocasión, los calendarios de pared y de bolsillo de 2023 llevan imágenes de los años 60 y 70 de la vida del barrio de Sarrueta.*
*La presentación del calendario ofreció la oportunidad para un nuevo encuentro en el que compartir experiencias personales y colectivas que titulamos “Bidebieta. Vivencias del barrio. Irudi partekatuak“, y en el que participaron vecinos y vecinas del barrio, Josetxo Yaben, Dolores Armendariz, Mertxe Ayesta, y Miren Koruko Gonzalez Galarraga.*
*Las fotografías de la exposición “Sarrueta-Martutene ”, que se pudo ver en verano, estuvieron colgadas en la sala. Cinco de las fotos fueron las elegidas para los calendarios, cedidas por Dolores Armendariz, Josetxo Yaben, Kutxateka, y Txema Loinaz.*
*El calendario se repartió en Casares, y por medio de los que han ayudado en la publicación: Erdikoa taberna, Nido eta Zumardi tabernak, Lizarra Kanpina, AA.VV Sarroeta-Martutene, Txapel-Andi elkartea, CC Garbera, Herri Ametsa Ikastola.*

## *3. Altzako Tokiko Bilduma*

2022ko urte amaieran 21.299 daude datu basean katalogatuta eta horietatik 17.710 kontsulta daitezke www.altza.info web gunean.
Bildutako eta/edo katalogatutako dokumentuen artean (denera 1.367) multzo nagusiak hauek dira:

- Hemeroteka, 551. Eta horien artean 435 fitxa La Voz de Guipúzcoa egunkariko 1931. urteko kronikak daude, irudia eta traskripzioarekin. Aipagarria da ere Intxaurdi Auzo Elkarteko hemeroteka: 640 kronika, 59 fitxa/multzotan antolatuta.
- Artxibo-dokumentuak, 548. Horietatik 336 Gipuzkoako Artxibo Historikoetatik eskuratutako dokumentuei eta beraien traskripzioei dagozkie. Horrez gain, auzoetako aspaldiko 62 jaien egitarauak.
- Argazkiak, 181. Nabarmentzekoak dira Los Boscos auzunearekin erlazionatuak, 60, eta Gazte-Leku elkartea eta San Pablo parrokiarekin, 64.
- Erregistroan katalogatu gabe dauden dokumentuei (multzoka kutxetan bilduak daude) fitxa ireki zaie datu-base orokorrean, denera 92 fitxa.
- Berrikusiak (informazioa osatu/zuzendu, berriro digitalizatuak…): 343 dokumentu, batez ere argazkiak. Katalogatuak zeuden 49 jai-egitarau berriro eskaneatu dira haien kalitatea hobetzeko (kolorez…).

Hedapenari dagokonez, www.altza.info helbidean (Google Analitycs erabiliz neurtua), 5.313 erabiltzaile (iaz baino %6,81 gehiago), eta bisita kopurua 73.402koa (iaz baino %12 gutxiago).
Casaresen ostegunetako arratsaldetan kontsulta-zerbitzua eskaini da, baita telefonozko eta posta elektronikoaren bitartekoa ere, denera 97 kontsulta izanik.
Estibaus buletin digitalean 9 artikulu argitaratu dira, Bilduman jasotako edukiak eskainiz.
Bi erakusketa antolatu dira, bat Garberan, Sarrueta-Martutene auzoari buruzkoa; eta Euskaraldiaren egitarauaren barruan “Altza euskaraz” (Tomasenen). Garberako erakusketekin lotuta, aurreko edizioetan egin zen bezala, auzoko ikastolan eta ostalaritzako lokaletan ikusgai jarri dira argazkiak.

## *3. Colección Local de Altza*

*A finales de 2022 hay 21.299 catalogados en la base de datos, de los cuales 17.710 se pueden consultar en la web www.altza.info.*
*Los principales grupos de documentos recogidos y/o catalogados (1.367 en total) son los siguientes:*

- *Hemeroteca, 551. Entre ellas se encuentran 435 fichas con la imagen del recorte y la trascripción de las crónicas del periódico La Voz de Gipuzkoa del año 1931. Destaca también la hemeroteca de la Asociación de Vecinos Intxaurdi: 640 crónicas organizadas en 59 fichas/bloques.*
- *Documentos de archivo, 548, de los cuales 336 corresponden a documentos obtenidos de los Archivos Históricos de Gipuzkoa y sus trascripciones. A estos hay que añadir los programas de las 62 antiguas fiestas de los barrios de Altza.*
- *Fotografías, 181. Destacan las relacionadas con el barrio de Los Boscos, 60, y la asociación Gazte-Leku y la parroquia de San Pablo, 64.*
- *A los documentos registrados pero no catalogados, que se encuentran recogidos en cajas, se les ha abierto la ficha en la base de datos general; un total de 92 fichas.*
- *Revisados (completar/corregir información, volver a digitalizar): 343 documentos, principalmente fotografías. Se han reescaneado 49 programas festivos que ya estaban catalogados para mejorar su calidad.*

*En cuanto a la difusión, en www.altza.info (medida con Google Analitycs), hemos contado con 5.313 usuarios (un 6,81% más que el año pasado) y el número de visitas ha sido de 73.402 (un 12% menos que el año pasado).*
*En Casares durante las tardes de los jueves se ha ofrecido un servicio de consulta, así como un servicio telefónico y de correo electrónico, con un total de 97 consultas.*
*En el boletín digital Estibaus se han publicado 9 artículos ofreciendo los contenidos recogidos en la Colección.*
*Se han organizado dos exposiciones, una en Garbera, sobre el barrio de Sarrueta-Martutene; y otra dentro del programa de Euskaraldia, “Altza euskaraz”, en Tomasene. Relacionado con las exposiciones de Garbera, igual que se hizo en las anteriores ediciones, las fotografías expuestas en la ikastola del barrio y en locales de hostelería.*

## 4. Lekukoak proiektua

“Lekukoak” proiektuaren helburuetako bat joan den XX. mendean zehar altzatarren komunitatean gertatu ziren prozesu sozialak berreskuratzea, gordetzea eta zabaltzea da. Pasa den 2022an, 60 eta 70eko hamarkadetako gazte mugimenduaren historia landu dugu, Santa Barbara eta Roteta auzoen inguruan. Prozesu hura bizi izan zutenei egindako 40 elkarrizketa baino gehiagoren bidez landu da historia txiki hau. Santa Barbarako jesuiten etxebizitzan (gaur egun La Palmera taberna) izandako lehen topaketetatik hasita, Erroteta auzoan Centauro klubarekin jarraituz, Santa Barbarako Gazte-Leku elkartearekin amaitzeko. Era berean, urte horietan garatu zituzten jarduera ugariak (eskubaloia, mendizaletasuna, euskal dantzak, atletismoa, futbola, errugbia,…) dokumentatu dira. Lan horren emaitza 2023an zehar argitaratuko da Estibaus aldizkari digitalean.
Aipatutako jarduerekin lotutako hainbat argazki eta dokumentu bildu dira, baita auzo horietan urte haietan izandako bizimoduarekin lotutakoak ere. Argazki multzoaren zati handi bat Felix Iranzok eta Roberto Mendigurenek egindakoa da. Azken hau, garai hartan Arriberriko San Pablo parrokiako apaiza zen. Material hori guztia digitalizatuta eta katalogatuta dago, eta Altzako Tokiko Bilduman kontsulta daiteke.
Bestalde, ahal izan dugun neurrian, bideo-grabazioekin jarraitu dugu. Joan den udan, Santiago Leoz 96 urteko altzatarra elkarrizketatu genuen. Urtean zehar, Tina Ariasi eta Santiago Leozi egindako elkarrizketak editatu eta kodetu ditugu, ondoren web orrian

## *4. Proyecto Lekukoak*

*Entre los objetivos del proyecto “Lekukoak” está el recuperar, preservar y difundir los diferentes procesos sociales que se produjeron en la comunidad altzatarra a lo largo del pasado siglo XX. El pasado 2022, hemos trabajado la historia del movimiento juvenil durante los años 60 y 70, en el entorno de los barrios de Santa Bárbara y Roteta.*
*A través de más de 40 entrevistas realizadas a personas que vivieron aquel proceso se ha elaborado esta pequeña historia. Comenzando por los primeros encuentros en la vivienda de los jesuitas en Santa Bárbara (lo que hoy es el Bar La Palmera), continuando en el barrio de Roteta con el club Centauro, para terminar con el centro juvenil Gazte-Leku de Santa Bárbara. Así mismo, se han documentado las numerosas actividades que desarrollaron durante aquellos años como balonmano, montañismo, danzas vascas, atletismo, fútbol, rugby, etc. El resultado de este trabajo se irá publicando a lo largo del año 2023 en el boletín digital Estibaus.*
*También se han recogido numerosas fotografías y algunos documentos, relacionados con las actividades señaladas, así como con la vida en esos barrios en aquellos años. Una parte importante de las fotografías fueron obra de Félix Iranzo y Roberto Mendiguren, entonces sacerdote jesuita de la parroquia de San Pablo (Arriberri). Todo este material ya digitalizado y catalogado, se puede consultar en la Colección Local de Altza.*
*Por otra parte, en la medida de nuestras posibilidades, hemos continuado con las grabaciones en vídeo. El pasado verano, entrevistamos a Santiago Leoz, vecino altzatarra de 96 años de edad. A lo largo del año, hemos editado y codificado las entrevistas realizadas a Tina Arias y Santiago Leoz; colocándolas posteriormente en la página web.*

## 5. Ibilaldiak

### 5.1 Plus 55, Altzatik abiatutako ibilbideak

Aurten zortzi ibilaldi egin ditugu Plus 55 programaren barruan, denak oso giro onarekin eta parte hartzearekin. Honako hauek dira:

- Apirilaren 28an, Andoaindik Tolosarako tartea egin genuen, Gipuzkoako barnealdetik doan Donejakue Bideari dagokiona.
- Maiatzaren 12an, Altzako Naturaldia jardunaldien barruan, Marko Sierrarekin paseo botaniko bat egin zen Harria eta Larratxoko parkeetan zehar.

## 5. Excursiones

### *5.1 Plus 55 Caminos desde Altza*

*Este año hemos realizado ocho paseos dentro del programa Plus 55, todos con muy buen ambiente y participación. Son los siguientes:*

- *El 28 de abril, recorrimos el tramo de Andoain a Tolosa correspondiente al Camino de Santiago por el interior de Gipuzkoa.*
- *El 12 de mayo, en el marco de las Jornadas de la Naturaleza de Altza Naturaldia, se hizo un paseo botánico con Marko Sierra por los parques de Harria y Larratxo.*
- *Dentro de las mismas jornadas, el 26 de mayo se hizo un paseo por Ulia, dese el Faro de la Plata hasta Sagües.*

- Naturaldiaren barruan ere, maiatzaren 26an, Uliatik paseoa egin zen, Platako itsasargitik Sagueseraino ibiliz.
- Ekainaren 9an Irisasi parkea zeharkatu genuen, Usurbilgo Andatza mendian, errotarrien harrobiak bisitatuz.
- Ekainaren 23an Altzatik Santiagomendira joan ginen sagardoaren bidetik.
- Uztailaren 7an Oiartzungo Beloaga gotorlekua bisitatu genuen, Urkabetik, Lezo - Irun - Oiartzun mugan.
- Irailaren 15ean txangoa egin genuen Herreratik Mitxintxola mendira, Jaizkibelen.
- Eta azkenik, denboraldia urriaren 6an itxi genuen Donejakue Bidearen etapa berri batekin, Tolosatik Beasainera doana.

- *El 9 de junio se recorrió el parque Irisasi, en el monte Andatza de Usurbil, reconociendo canteras de piedras de molino.*
- *El 23 de junio fuimos de Altza a Santiagomendi por la ruta de la sidra.*
- *El 7 de julio visitamos la fortaleza de Beloaga, en Oiartzun, marchando por Urkabe, en la muga Lezo - Irun - Oiartzun.*
- *El 15 de septiembre hicimos una excursión desde Herrera al monte Mitxintxola, en Jaizkibel.*
- *Y por último, la temporada la cerramos el 6 de octubre con una nueva etapa del Camino de Santiago, la que va de Tolosa a Beasain.*

**5. Oketa mendira (Zigoitia)**

Javi Castroren eskutik, Oketa mendira (Zigoitia) txango bat egin genuen urriaren 15ean inguru eder horretan dauden errotarriak eta harrobiak ezagutzera. Paseoa Zigoitiko Abadelaueta etnografia elkartekoekin egin genuen eta bertako ondare baliotsua ezagutzeko parada izan genuen.

**5.2 Otras**

*De la mano de Javi Castro, el 15 de octubre realizamos una excursión al monte Oketa (Zigoitia) para conocer las muelas y canteras que hay en ese bello entorno. El paseo lo hicimos con la asociación etnográfica Abadelaueta de Zigoitia y tuvimos la oportunidad de conocer el valioso patrimonio del entorno.*

**6. AltzaNatura**

2022. urteko Altzako Naturaldiaren egitaraua jardueraz beteta etorri da. Bederatzigarren edizioa maiatz osoan zehar garatu da eta landareen, hegaztien eta harrien mundura hurbildu gara paseoaren, ezagutzaren, irudiaren, elikaduraren eta hausnarketaren bidez. Hauxe izan da programa:

- Maiatzak 2-31: “AMAZONIA GARA - SOMOS AMAZONIA” Erakusketa, (Alboan Fundazioa)
- Maiatzak 12: IBILALDI BOTANIKOA
- Maiatzak 13: GOZOKI TAILERRA (Herrerako Kirol Elkartea)
- Maiatzak 14: IBILALDI ORNITOLOGIKOA, Mikel Olanoren eskutik.
- Maiatzak 15: PASEO FOTOGRÁFICO
- Maiatzak 23: BIDEO FORUMA: UN PASEO POR EL BOSQUE (A WALK IN THE WOODS, 2015)
- Maiatzak 26: ALTZATIK ABIATUTAKO IBILALDIA: ULIA (PASAIA - DONOSTIA)
- Maiatzak 28: PASEO GEOLÓGICO, Jose Mª Hernandez gidatua.

Antolatzaileak. Plus 55, Altzako Historia Mintegia eta Donostia Kultura izan dira, eta laguntzailea, Cristina Enea, Gipuzkoako argazkilari Elkartea / Sociedad fotográfica de Gipuzkoa, eta Herrerako Sukalde.

**6. AltzaNatura**

*El programa del Naturaldia de Altza 2022 ha venido cargado de actividades. La novena edición se ha desarrollado durante todo el mes de mayo y nos hemos acercado al mundo de las plantas, las aves y las piedras a través del paseo, el conocimiento, la imagen, la alimentación y la reflexión. El programa ha sido el siguiente:*

- *2-31 de mayo: AMAZONIA GARA - SOMOS AMAZONIA Exposición, (Fundación Alboan)*
- *12 de mayo: PASEO BOTÁNICO*
- *13 de mayo: TALLER DE CARAMELOS (Club Deportivo Herrera)*
- *14 de mayo: PASEO ORNITOLÓGICO a cargo de Mikel Olano.*
- *15 de mayo: PASEO FOTOGRÁFICO*
- *23 de mayo: VIDEO FORUM: UN PASEO POR EL BOSQUE (A WALK IN THE WOODS, 2015)*
- *26 de mayo: PASEO DESDE ALTZA: ULIA (PASAIA - DONOSTIA)*
- *28 de mayo: PASEO GEOLÓGICO, conducido por José Mª Hernández.*

*El programa ha sido organizado por Plus 55, Altzako Historia Mintegia y Donostia Kultura, y han colaborado Cristina Enea, Gipuzkoako Argazkari Elkartea/Sociedad fotográfica de Gipuzkoa, y Herrerako Sukalde.*

**7. Ganbara**

Aro berri bati eman zaio hasiera uda honetan Ganbara Bildumaren ibilbidean, objektuak Aranzadi Zientzia Elkarteari eskualdatuta. 1998az geroztik, AHMk 350 objektu zahar inguru bildu ditu Ganbaran, etxean erabiltzekoak eta industria-jatorrikoak; horietatik 245 katalogatuta zeuden eta Altzaneten ikus daitezke. Gehienak partikularren ekarpen desinteresatuak izan dira eta Larratxoko kultur etxean gordeta egon dira.
Ganbara lehen urratsak ematen hasi zen Javier Cantera gure taldekidearen eskutik. Proiektuaren inguruan eta bere gidaritzapean, Jon Serrano, Joaquín Garrido, Miguel Ángel Padrones, Ángel Almeida eta Kepa Amondarainek osatutako taldea elkartu zen, eta, beste lan batzuez gain, bost erakusketa antolatu zituzten 2004 eta 2012 artean. Estibausen bitartez, 2002tik Ganbararen bizitza eta Javierrek idatzitako artikuluak ezagutu daitezke, eta ondoko esteka honetan Ganbarko bideoak Youtuben ikus daitezke.
2007az geroztik, Herrerako lokal bat lanerako eta erakusketarako gune gisa egokitzeko ideia landu zen, baina ez zuen aurrera egin. Hortik aurrera, bilduma osorik eta Altzatarren proiektu gisa errespetatuko zen bildumarako etorkizuneko irtenbide bat bilatzera bideratu dira ahaleginak, bai eta haren funtsa jarduera baterako beharrezkoa zenean eskuragarri egotera ere. Gordailu eta San Telmorekin egindako gestioek ez zuten emaitzarik izan, eta, azkenik, Ganbara Aranzadiko Etnografia Departamentuan hartu dute, Bidebietako “Ikastetxe Horian” dagoen Etnografia Laborategian.
Eskerrak eman nahi dizkiegu urte hauetan guztietan beren objektuen ardura eman diguten pertsonei, baita objektu horiek gordetzeko espazioa eman digun kultur etxeari ere. Aurrerantzean, Ganbara oso esku onetan ikusteak ematen digun lasaitasunarekin,

**7. Ganbara**

*Una nueva etapa ha dado comienzo este verano en la vida de la Colección Ganbara con el traspaso de los objetos a la Sociedad de Ciencias Aranzadi. Desde 1998, AHM ha ido reuniendo en el seno de Ganbara un conjunto de cerca de 350 objetos antiguos, de uso doméstico y de origen industrial, de los cuales 245 estaban catalogados y se pueden ver en Altzanet. La mayor parte de ellos han sido aportaciones desinteresadas de particulares y han estado guardados en la casa de cultura de Larratxo.*
*Ganbara empezó a dar sus primeros pasos de la mano de nuestro compañero Javier Cantera. En torno al proyecto y bajo su batuta, se juntó un equipo formado por Jon Serrano, Joaquín Garrido, Miguel Ángel Padrones, Ángel Almeida y Kepa Amondarain, que, además de otras labores, organizaron cinco exposiciones entre 2004 y 2012. Por medio de Estibaus se pueden conocer lo que ha sido la vida de Ganbara desde 2002 y los artículos escritos por Javier, y en el enlace siguiente los vídeos de Ganbara en Youtube.*
*Desde 2007 se trabajó sobre la idea de acondicionar un local en Herrera como un espacio de trabajo y exposición, pero no prosperó. A partir de ahí los esfuerzos han estados dirigidos a buscar una solución de futuro para la colección en la que se respetara la colección en su integridad y como proyecto altzatarra, así como que su fondo estuviera disponible cuando fuera preciso para una actividad. Las gestiones con Gordailu y San Telmo fueron infructuosas y, finalmente, Ganbara ha sido acogida en el seno del Departamento de Etnografía de Aranzadi, en el Laboratorio de Etnografía, ubicado en “Colegio Amarillo” de Bidebieta, lo que nos llena de satisfacción.*
*Solo nos queda mostrar nuestro agradecimiento a las personas que nos han confiado sus objetos en todos estos años, así como a la casa de cultura que nos ha facilitado el espacio para guardarlos. En adelante, con la tranquilidad que nos da ver a Ganbara en muy buenas manos, haremos un seguimiento de la colección en esta nueva etapa y daremos noticia de las novedades que se produzcan.*

bildumaren jarraipena egingo dugu etapa berri honetan, eta sortzen diren nobedadeen berri emango dugu.

**8. Barrutia**

Aurreko urteetan egindakoaren ildotik, AHM gainontzeko elkarteekin batera barrutiko lanetan elkarlanean aritu da, elkarte taldearekin jarraipen bilerak eginez eta Batzarraren lantaldeen bileretan parte hartuz, Komunikazioa eta Memoria Historikoko bileretan, zehazki. Era berean, elkarteak Barrutiko bi Biltzarretan parte hartu zuen, ekainaren 22an eta abenduaren 14an.
Memoria Historikoari dagokionez, Aranzadik eskatu zitzaion Gerra Zibileko biktimei buruzko txostena entregatu du, eta "Altza 1931-1937: Ilusio galduen kronika" dokumentala amaitu da, horien dibulgazio-lana egiteke geratuz.

***8. Distrito***

*En la línea de estos últimos años, AHM ha colaborado con las demás asociaciones en los trabajos del distrito, participando en las reuniones de seguimiento del grupo de asociaciones y en los grupos de trabajo, concretamente en los de Komunicación y Memoria Histórica. Igualmente, ha participado en las dos Asambleas del Distrito que tuvieron lugar el 22 de junio y el 14 de diciembre.*
*En relación con la Memoria Histórica, Aranzadi ha entregado el informe sobre las víctimas de la Guerra Civil que se le encargó y se ha terminado el documental "Altza 1931-1937: Ilusio galduen kronika", quedando pendiente el trabajo de divulgación de los mismos.*

**9. Elkartearen bizitza**

**Elkartearen artxiboa**: Elkartearen dokumentazio administratiboa eta ofiziala behar bezala artxibatuta dago, baita ia ekoizpen digital eta digitalizatu guztia ere, baina oraindik sailkatu gabe genuen formatu ez digitalean (papera, disko…) dagoen dokumentazio ugaria, denborarekin pilatuz joan dena. Iaz urrats garrantzitsu batzuk egin dira horren antolamenduan, dokumentuak sailkatuz eta erregistratuz.

**Altak eta bajak**:
ALTAK

- Jon Tamayo Insua
- Josune Uranga Barandika
- Saioa Paulis Ule
- Manex Ralla Arregi

BAJAK

- Carlos Orbegozo Etxebeste
- Manuel Arrieta Irizar (+)

Une honetan elkarteak 194 bazkide ditu.

***9. Vida de la asociación***

***Archivo** de la asociación: La documentación administrativa y oficial de la asociación se encuentra adecuadamente archivada, así como prácticamente toda la producción digital y digitalizada, pero teníamos pendiente por clasificar y registra una abundante cantidad de documentación en formato no digital (papel, disco…) que se ha ido amontonando con el tiempo. Este pasado año se han dado algunos pasos importantes en su ordenación.*

***Altas y bajas:***
*ALTAS*

- *Jon Tamayo Insua*
- *Josune Uranga Barandika*
- *Saioa Paulis Ule*
- *Manex Ralla Arregi*

*BAJAS*

- *Carlos Orbegozo Etxebeste*
- *Manuel Arrieta Irizar (+)*

*En la actualidad la asociación cuenta con 194 socias y socios.*

Aurkeztutako 2022. urteko memoria aho batez onartzen da.

*Se aprueba por unanimidad la memoria del año 2022.*

**2. Ekonomi balantzea – 2022** | **2. Balance económico – 2022**

| | SARRERAK | GASTUAK |
|---|---|---|
| Aurreko saldoa (2021/01/01) | 9.631,20 | |
| Bazkide kuotak | 1.900,00 | 55,79 |
| Tokiko Bilduma | 5.000,00 | 1.549,84 |
| "Estibaus" buletina | | 1.375,92 |
| Altzanet | | 1.041,55 |
| Lekukoak | | 65,50 |
| "Gerra Zibila Altzan" proiektua | | 870,00 |
| "Altza ezagutuz" programa | 525,00 | 496,25 |
| Txangoak | | 125,83 |
| Egutegia - 2022 | | 779,24 |
| Egutegia - 2023 | 180,00 | 909,40 |
| Ekipamendu informatikoak | | 449,30,39 |
| Kontu korronteen kudeaketa | | 167,44,26 |
| Elkartearen bizitza | | 725,05 |
| **GUZTIRA . . .** | **17.236,20** | **8.611,11** |

***SALDOA (2022/12/31): 8.625,09 €***

| | |
|---|---|
| **LABORAL KUTXA** | **8.625,09** |

Altza, 2023ko urtarrilaren 18a.

Diruzainak aurkeztutako 2021. urteko balantzea aho batez onartua izan zen.

*La Asamblea aprobó por unanimidad el balance de cuentas correspondiente al año 2021 presentado por el Tesorero.*

**3. Bazkide berrien onarpena eta bajak**

ALTAK
- Jon Tamayo Insua
- Josune Uranga Barandika
- Saioa Paulis Ule
- Manex Ralla Arregi

BAJAK
- Carlos Orbegozo Etxebeste
- Manuel Arrieta Irizar (+)

***3. Admisión de nuevos socios y socias, y bajas***

ALTAK
- Jon Tamayo Insua
- Josune Uranga Barandika
- Saioa Paulis Ule
- Manex Ralla Arregi

BAJAK
- Carlos Orbegozo Etxebeste
- Manuel Arrieta Irizar (+)

**4. 2023. urterako egitasmoa**

2023. urtean zehar garatzeko asmoa daukagun jarduerak hauek dira:
Casares-Tomasene Kultur Etxearekin elkarlanean:
- Altzako Tokiko Bilduma
- Altzatik abiatutako ibilbideak (Plus 55)
- Altzako Naturaldia

Elkartearen barneko jarduerak:
- Elkartearen artxibategia
- Ganbara bildumaren katalogoa

Jarduera orokorrak:
- Lekukoak
- Dokumentala: 50-60 hamarkadetako immigrazio
- Barrutia
- Memoria histórica
- Altzapedia
- Ibilaldiak
- Estibaus bloga eta buletina
- 2024. urteko egutegia.
- Argazki erakusketa
- Beste elkarteekin elkarlana.

Jarduera horien finantzatzeko bazkideen kuotak, Tokiko Bilduma kudeatzeko hitzarmenaren ekarpena, eta elkartearen diru-erreserba daukagu.

***4. Plan de actividades para el año 2023***

*Las actividades previstas para desarrollar en 2023 son la siguientes:*
*En colaboración con la Casa de Cultura Casares-Tomasene:*
- *Colección Local de Altza*
- *Caminos desde Altza (Plus 55)*
- *Jornadas de la Naturaleza de Altza.*

*De carácter interno de la asociación:*
- *Archivo de la asociación*
- *Catálogo de la Colección Ganbara*

*Actividades:*
- *Lekukoak*
- *Documental: Inmigración años 50-60*
- *Distrito*
- *Memoria historikoa*
- *Altzapedia*
- *Excursiones*
- *Blog y el boletín Estibaus*
- *Calendario 2024.*
- *Exposición fotográfica*
- *Colaboraciones con otras asociaciones.*

*Para la financiación de estas actividades contamos la aportación económica de los socios y socias, el convenio de colaboración de la Colección Local, y el fondo de reserva.*

**5. Norberak dakarrena**

Hainbat parte-hartzailek hitz egin zuten hildakoak gogoratzeko eta ondare historiko altzatarra (Herrerako lurpeko pasabidearen armarria, Tomasene) kontserbatzeko kezka agertzeko.

***5. Ruegos y preguntas***

*Varios participantes intervinieron para recordar a los fallecidos y mostrar preocupación por la conservación del patrimonio histórico altzatarra (escudo del paso subterráneo de Herrera, Tomasene…).*

**6. Aktaren onarpena**

Batzarraren akta irakurri ondoren aho batez onartua izan zen.

Idazkaria

Iñigo Landa

***6. Aprobación del acta***

*Se procedió a la lectura de la presente acta y fue aprobada por unanimidad.*

*Lehendakaria*

Jon Serrano